



4 PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	OLABIDE IKASTOLA						KODEA:	2017-2018				
ARLOA	INGELESA						DATA: 2017/18					
MAILA	DBH 1		DBH 2		DBH 3	X	DBH 4		BATX 1		BATX 2	

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
<p>HIRUGARREN MAILA HONETAN IKASLEAREN AUTONOMIA HIZKUNTZA IKASKETA PROZESUAN, GARRANTZIA ETA BENETAKO PROTAGONISMOA HARTZEN DOA.</p> <p>1- Eguneroko bizitzan erabiltzeko eta ikaslearen errealitatean eta gizartean garrantzia dituzten gaien buruz jarduteko behar den hizkuntza-terminologia eta egiturei buruz hausnartzea.</p> <p>2- Gelan, eguneroko bizitzan eta errealitate hurbilean, idatziz zein ahoz sortzen diren testuak ulertzea. Maila honetan hizkuntza espezifikoagoa izatera pasatzen da eta informazio gero eta abstraktuagoa kudeatzen ikasten jarraitzen dute. Testu mota ezberdinak iturri ezberdinetatik jasoko dira: CDak, pelikulak, aldizkariak, testu liburua, internet... Informazio espezifikoa zein orokorra eskuratzeko gai izatea, garrantzitsua dena eta ez dena bereizten.</p> <p>3- Jasotako hizkuntza ezagutza erabiliz eta loturiko giza-elementuak zein kulturalak kontutan harturik, idatzizko zein ahozko testuak ekoiztea: ahozko aurkezpenak, eguneroko bizitzan ematen diren elkarrizketak (dendak, jatetxeak, gelan...), idatzizko testu narratiboak, deskriptiboak, iritzia ematekoak, testu iruzkinak. Landu eta ebaluatuko diren aspektuak hauek izango dira besteak beste: Koherentzia, ideien antolaketa, lexikoaren erabilera, ortografia, zuzentasun gramatikala, originaltasuna.</p> <p>4- Ikasketa prozesuan inplikaturik dauden elementu guztiekiko jarrera positiboa adieraztea: Atzerriko hizkuntzak eta beste kulturak ezagutzeko interesa eta errespetua, kideekiko zein irakaslearekiko errespetua, ardura, interesa, autonomia, ikasketa kontzientea ...</p>	

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA				
	1. ebaluazioa		2. ebaluazioa		3. ebaluazioa
6	Hiztegia: - Aurreko ikasturteko berrikusketa. - journeys & feelings. - achievements & activities - travelling	6	Hiztegia: - towns - food - relationships	6	Hiztegia: - crime - inventions and innovations - parts of the body - animals
6	Egitura gramatikalak: - there is/are - there was/were - articles & quantifiers - Irregular plurals - Past Simple/Continuous - Used to - Present Perfect Simple - Future tenses - Irregular Verbs - Comparison of adjectives & adverbs	6	Egitura gramatikalak: - Zero, first and second conditionals - Defining Relative Clauses - Modal verbs	6	Egitura Gramatikalak: - The Passive: Present Simple Passive and Past Simple Passive. - <i>Past Perfect</i> - <i>Reported speech</i> Gramatika osoko birpasoa.



4	Idazmena: Brainstorming, text organisation, paragraph structure. Punctuation. <ul style="list-style-type: none"> - A narrative - A news article - An e-maila 	5	Idazmena: <ul style="list-style-type: none"> - A description of a place - A restaurant review /adjective order - A letter asking and giving advice 	5	Idazmena: <ul style="list-style-type: none"> - Connectors - A newspaper report - An essay about an invention - A report about an animal
5	Ahozko ekoizpena: <ul style="list-style-type: none"> - Introductions and personal information - Classroom language - Talking about: famous people, travel plans, explorers, interests, ... - Oral presentations. 	5	Ahozko Ekoizpena: <ul style="list-style-type: none"> - Talking about: unreal situations, meals, problems,... - Giving directions - Describing food, discussing food preferences - Comparing - Oral presentations 	5	Ahozko Ekoizpena: <ul style="list-style-type: none"> - Talking and reporting crimes - Talking about: ,Past actions, Inventions,.. - Describing and comparing animals - Describing pictures
1	Ahoskera: Soinuak/phonetic symbols , aditzen bukaerak, forma ahulak.	1	Ahoskera: kontrakzioak, soinu ahulak, intonazio eta erritmoa.	1	Ahoskera: Kontrakzioak, esaldiaren azentuzioa, partizipio erregular eta irregularrak, hitzaren azentuzioa.
5	Ahozko zein idatzizko ulermena: Liburu adaptatu baten ulermena: "Robinson Crusoe" by Daniel Defoe. Elkarrizketak, argudio eta azalpen testuak, ezkutitzak, ...	5	Ahozko zein idatzizko ulermena: Liburu adaptatu baten ulermena: "L.A. Winners" by Philip Prowse. Gai ezberdinei buruzko testu eta entzumenak.	5	Ahozko zein idatzizko ulermena: Gai ezberdinei buruzko testu eta entzumenak. Azpitoluak dituen pelikula bat ikusi eta era ezberdinetan landu.

3

IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIAI
Hizkuntzaren Hausnarketa:

- Ikasleek egoera errealetan beharko dituzten tresna linguistiko zein kulturalak erakustea baliabide ezberdinak erabiliz.
- Ikasleen parte hartze aktiboa bultzatzea komunikaziorako baldintzak ezagutu araziz: errespetua, entzuten ikastea, ahozko eta ez ahozko estrategiak erakutsiz...
- Ikaslea egoera komunikatibo errealetan kokatzea antezpenak eta aurkezpenak aurrera eramanez.
- Idatzizko estrategiak irakatsi: paragrafo banaketa, lokailuak, ideien antolaketa.
- Akatsen hausnarketa: hizkuntzaren ikasketaren prozedura autonomoa izan dadila, ikasleek haiek sortutako testuen akatsen zuzenketa egiteko lehenengo pausuak emango dituzte.
- Ahozko zein idazmen ulermena garatzea testu egokituak erabiliz. Narrazio eta artikuluen irakurketa autonomoa zein gidatua landuz.
- Testu iruzkinak garatzeko estrategiak landu.
- Ikasketa arduratsu eta kontzientea bultzatuko da. Horretarako, berriak ez diren gai gramatikalen azalpenak egitea eskatuko diegu. Hizkuntza terminologia eta egiturei buruzko hausnarketa egitea eta barneratzea ariketa ezberdinen bitartez: hutsuneak bete, ideiak lotu, hitzak ordenatu, aukerak egin...
- Hizkuntza irakasteko motibazioa sortu nahian baliabide ezberdinak erabiltzea: musika, internet, pelikulak, aldizkariak, nobela egokituak etab.
- Azalpenak ingelesez egingo dira batez ere. Euskara edo gaztelania oso beharrezkoa denean, egoera puntualetan erabiliko dira. Ingelesa erabilera bultzatuko da gelako hizkuntza tresna nagusi bezala.
- Aurretik dituzten beste hizkuntzen ezagutzak erabiliko dira konparaketak egiteko.
- Ikasleen gai ezberdinen eta gramatika arloko ezagutza maila aztertzeke mota ezberdinetako



ariketak egingo dira. Aukera dagoenean, ikasleei gramatika azalpenak ematea eskatuko zaie, bereziki aldez aurretik ikusitako materia denean.

- Gramatika azalpenak eman ondoren ahoz eta idatzizko jarduerak aurrera eramango dira emandako egiturak barneratzeko.
- Aditz irregularren ahozko eta idatzizko ezagutzak garrantzi handia izango du maila honetan .
- Lau trebetasunak aldi berean landuko ditugu: *reading, writing, listening and speaking*. Azalpenak beti ingelesez emango dira. Kasu berezietan, beharrezkoa balitz, euskera edo gaztelania erabiliko dira.
- Bikoizketa klaseak aprobetxatuko dira ikasleak parte hartzera bultzatzeko. Ikasleek banakako aurkezpenak, debateak eta beraien arteko elkarriketak egingo dituzte. Haien intereseko gaiak tratatzeko ere aukera emango zaie.
- Ikasleek aukeratutako gai bati buruz hiru minututako ahozkoak egingo dituzte. Horren bidez jende aurrean hitz egiteko estrategiak landuko dituzte.

4

BALIABIDEAK

Aldizkariak

Ikt baliabideak: dvd, CDa, internet.

Testu Liburua:New English in Use 3: Student's Book
and workbook

BURLINGTON BOOKS

Liburuxka Adaptatuak:

"Robinson Crusoe" Daniel Defoe

"L.A. Winners" Philip Prowse

BURLINGTON BOOKS

MACMILLAN READERS

Beste batzuk:

"Round Up 3"	Longman
"Grammar Time 3"	Cambridge University Press
"Grammar Practice Activities"	Cambridge University Press
"Games for Grammar Practice"	Penguin
"Vocabulary Games and Activities 1"	Penguin
"Grammar Games and Activities 1"	Penguin
"Vocabulary Games and Activities for Teachers"	Longman



5

**EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK,
 EBALUATZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK**

EBALUAZIOA JARRAIA IZANGO DA. EDUKIAK GEHITZEN JOATEN DIRA ETA MAILA APURKA IGOTZEN DOA. ONDORIOZ KURTZOAN ZEHAR EZ DIRA ERREKUPERATZEKO FROGAK EGINGO. KURTZOAN ZEHAR HELBURU EZBERDINAK BALORATZEKO FROGA EZBERDINAK EGINGO DIRA: IDAZMEN TESTUA, ULERMEN TESTUAK, AHOZKO AURKEZPENAK ETA HIZKUNTZA TERMINOLOGIA ETA EGITURAK BARNERATU DITUZTEN BALORATZEKO ARIKETA FROGAK PASATUKO ZAIZKIE. FROGA HAUETAN GELAN LANDUTAKO HELBURUAK ZEIN NEURRIAN MENPERATZEN DITUZTEN BALORATUKO DA. ALDI BEREAN IKASLEAREN EGUNEROKO JARRERA BALORATUKO DA: TXUKUNTASUNA, LANAREKIKO ARDURA, ERRESPETOA, ...

EBALUAZIO BAKOITZEAN BATAZBESTEKO KALIFIKAZIOA KALKULATZEKO HELBURU GUZTIAK GUTXIENEZ **5** BATEKIN GAINDITU BEHARKO DIRA. BATAZ BESTETEKO NOTA KALKULATZEKO HELBURU BAKOITZAREN PONDERAZIOA HAUXE IZANGO DA:

- 1- HIZKUNTZAREN HAUSNARKETA: % 40
- 2- AHOZKO ZEIN IDATZIZKO TESTUEN ULERMENA % 20
- 3- AHOZKO ZEIN IDATZIZKO TESTUEN EKOIZPENA % 20
- 4- JARRERA % 20

HELBURU BAKAR BATEAN 5 BAINO GUTXIAGOKO NOTA LORTUZ GERO, IRAKASLEAK BATAZBESTEKO EGITEA ERABAKI DEZAKE. AIPATUTAKO IRIZPIDEAK ANIZTASUNAREN TRATAERAREN TESTUINGURUAN BALORATUKO DIRA.

6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA



ĒKAINEAN IKASLEEK HIRUGARREN EBALUAKETA GAINDITZEKO EZ OHIKO AUKERA BAT IZANGO DUTE. LANDUTAKO HELBURUAK (ULERMENA, EKOIZPENA, HIZKUNTZAREN HAUSNARKETA) GAINDITZEN DITUZTEN BALORATZEKO FROGA OROKOR BAT PASATUKO ZAIE.

3. MAILA GAINDITZEN EZ BADUTE 4. MAILAKO LEHENENGO EDO BIGARREN EBALUAKETAK GAINDITUZ GERO, 3. MAILA HORI GAINDITUTZAT EMATEN ZAIE, EBALUAKETA JARRAIAREN IRIZPIDEA JARRAITUZ. BESTELA, DBH 4. MAILEAN, 2. EBALUAKETA ONDOREN, EZ OHIKO BI DEIALDI FROGA PASATUKO ZAIE, 3. MAILAKO HELBURUAK GAINDITZEN DITUZTEN BALORATZEKO. (OTSAILA EDO MARTXOAN ETA EKAINEAN)



PROGRAMACIÓN ABREVIADA

NOMBRE DEL CENTRO							Código:	200 - 20	
MATERIA							FECHA		
CURSO	1º ESO	2º ESO	3º ESO	4º ESO	1º BACH	2º BACH			

1	OBJETIVOS MÍNIMOS DE LA MATERIA FORMULADOS EN TERMINOS DE COMPETENCIAS							

2	TEMPORALIZACIÓN DE CONTENIDOS							
	1ª evaluación		2ª evaluación			3ª evaluación		

3	METODOLOGÍA EMPLEADA EN EL PROCESO DE ENSEÑANZA-APRENDIZAJE							

4	RECURSOS							
LIBRO DE TEXTO (explicar su utilización):				EDITORIAL:				

5	CRITERIOS DE EVALUACIÓN, INDICADORES, TÉCNICAS E INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN Y CRITERIOS DE CALIFICACIÓN							

6	SISTEMA DE RECUPERACIÓN Y DE REFUERZO							